



Panpi
Etxeko txik

Aukera ezazu, BIZI EUSKA

Asteazkena, 2007ko abenduak 5, 00:44:00an be

Gaurko alean

PAPEREKO EDIZIOA EUSKAL HERRIA MUNDUA KIROLA PLAZA

EZTABAIDAGUNEA BLOGAK
BEREZIAK

Papereko edizioa Asteazkena, 2007ko abenduak 5

[SAILAK >](#)

[Harian](#) | [Iritzia](#) | [Kirola](#) | [Agenda](#) | [Plaza](#)

HARIAN

Langile bat hil da Lantaronen, lur-jausi batek harrapatuta

Behargina lanean ari zen lubakia zurkaiztu gabe zegoela salatu dute sindikatuek

Estitxu Elduaian

Donostia

Beste heriotza bat utzi dute lan istripuek Euskal Herrian. Atzo gertatu zen, Lantaronen (Araba), industrialde batean. 11:15 aldean, J. R. P. lubaki bat egiten ari zen, eta bat-batean lur-jausi bat izan zen bera lanean ari zen tokian. Harri batek buruan jo zuen, eta zauri oso larriak eragin zizkion. Anbulantzia bertaratu zenerako hil egin zen langilea, kolpeak eragindako zaurien ondorioz.

Ezbeharraren lekukoen arabera, langilearen gainera erori zen harria «oso handia» zen. Kolpea jaso eta berehala langileak konorterik ez zuela galdu ere jakinarazi zuten lekukoek, langileak berak egindako oihuen bidez jakin baitzuten istripuaren berri. Anbulantzia iristerako, ordea, hil egin zen.

Hilotza lubakian kateatuta gelditu zen, eta ezin izan zuten berehalakoan atera. Miranda Ebrotik (Espainia) eta Gasteiztik joandako lau suhiltzaile talde behar izan ziren gorpua ateratzeko.

Miranda Ebroko Excavaciones Sierra Miranda enpresarentzat egiten zuen lan J. R. P.k, eta Lantarongo industrialdean Promociones Antepardo enpresaren azpiegiturretan ari zen lanean. Kableak sartzeko lubaki bat egiten ari zen, hain zuzen ere. 63 urte zituen, eta sei hilabete barru erretiroa hartzekoa zen.

Prekarietateari egotzi dio gertatutakoa LAB sindikatuak. «Ia-ia iragarritako heriotza bat izan da: eraikuntzan, lubaki batean, lur-jausi baten ondorioz... Orain 18 egun Donostian lan istripuz hil zen beste langilearen baldintza kaskarrak errepikatzen dira».

Sindikatu horren arabera, beste behin ere segurtasun neurri eskasiak zerikusi zuzena izan du ezbeharrean: «Onartezina da zurkaiztu gabeko lubaki batean langile bat lanean aritzera behartzea. Gutxieneko segurtasun

BLOGAK

Hitz beste

Atea

Erantzunak: 0

Ergeletan ergelenak

Zuzendaria ilargian

Erantzunak: 8

Nafar periferiatik

Itsu nahiago nuke.

Erantzunak: 0

HARPIDEDUNEN KIO:

PAULAREN SEIGARREN /
Hamar libururu

EZTABAIDAGUNEA

Gatazka gainditzeko Ib
ibilbide orria

Eman zure iritzi

Reala suspertzeko Iñaki
aurkeztu duen proiektua
egiten duzu?

BAI

EZ

Belgikan gobernua osatz
zailtasunek auzitan jarri
estatua bera?

BAI

EZ

neurria da lubakiak zurkaiztea, baina hori ere ez du egiten patronalak». Horregatik, atzoko heriotzaren «erantzule zuzena» patronala dela salatu du LABek, aurten «gertatu diren gainerako lan ezbeharren kasuan bezalaxe». Sindikatu horren arabera, gutxienez 108 langile hil dira urtea hasi zenetik Euskal Herrian.

CCOOk ere segurtasun neurri zorrotzagoak eskatu ditu, eta segurtasun arauak betetzen ez dituztenak zigortzea ere eskatu du.

Lantarongo ezbeharra salatzeko elkarretaratzeak egingo dituzte sindikatuek, baina bakoitzak bere aldetik. Gaur, Gasteizen, LABek 11:00etan egingo du elkarretaratzea, SEA patronalaren egoitzaren aurrean. ELAk, berriz, 13:00etan egingo du, Correos plazan; eta CCOOK astelehenean egingo du, 13:00etan, Hiribideko Auzitegien aurrean.

© BERRIA-Edizio Digitala
berria@berria.info - www.berria.info

[Lege Informazioa](#)

Euskal Editorea S.L. , Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain Tel 943 304 030 Fax 943 590 17

